


Usurbilgo Gazte Eguna

Antolatzailea: Aztarrika gazte asanblada.
11:30 Ginkana.
Ondoren, Hamaiketakoa.
20:30 Gazte-afaria Askatasuna plazan.
00:00 Kontzertu gaua:
 Ameba + Zilibito Records + DJ La Fulana.



Kantu-jira kalez kale

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.
Nori zuzendua: Herritar orok parte har dezake. Kantu liburuxka beharrezkoa da. NOAUaren egoitzan eros daiteke. Zatoz eta gozatu kantuan.



ERAKUSKETA

XXI. SOINURBIL: ARGAZKI ERAKUSKETA: "JANELA" LEIHO BAT GORKA URBIZUREN UNIBERTSORA BEGIRA

Noiz: Martxoak 14-30
Non: Sutegiko erakustaretoan.
Antolatzaileak: Zumarte Usurbilgo Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.
Laguntzaileak: Only In Drems /Koldo Mitxelena Kulturunea/ Gipuzkoako Foru Al-dundia.

Argazki erakusketa honetan Gorka Urbizu musikariak 2024an kaleratu zuen. "Hasiera bat" lanaren, grabaketa prozesuan eta lehen kontzertuetako une berezi eta intimoetan egindako argazkiak aurkezten ditu Ibai Arrieta del Pico argazkilari usurbildarrak. Era-kusketa honetan "leiho" txiki bat zabaltzeko proposamena egiten da, kantuaeren mui-nerako bidaian aurkitzen den musikariaren barne mundura gerturatzeko gonbidapena.

Erakusketaren irekiera: Martxoaren 14an, arratsaldeko 18:30etan.

Erakusketaren ordutegia:
 Ostegun eta ostiraletan: 17:30-20:00
 Larunbatean eta igandean 11:30-14:00/17:30-20:00

Bisita gidatuak: (5-10 pertsonako taldeak)
 Martxoak 15 Larunbata 12:00
 Martxoak 21 Ostirala 18:30
 Martxoak 28 Ostirala 18:30
 Izen-ematea: UsurbilKultura.eus plataforma bidez.

DEIALDIA

ARROBITXULO KO BATZARRA
Martxoak 22, 10:30-13:30 (Txirikordan).

KZ-GUNEKO IKASTAROAK

AURREZ AURREKOAK
Smartphoneak eta tabletak.
Zure Android gailua erabiltzen ikasi. (14 ordu)
Martxoak 03-11 09:00-11:00

Editatu bideoak zure smartphonearekin. (4 ordu)
Martxoak 12-13 09:00-11:00

Libre Office Impress.
Zure aurkezpenak sortu. (6 ordu)
Martxoak 14-18 09:00-11:00

Eman lehenengo pausoa argazki ukituan GIMPEkin (16 ordu)
Martxoak 19-28 09:00-11:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideo konferentzia eskaintza zabalda.

Martxoan Kzguna: Goizez 09:00-13:00
 Kale Nagusia 37 · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
 tutor.usurbil@kzguna.net · www.kzguna.eus

USURBIL MUSEO IREKIA

BISITA GIDATUAK

Usurbil beti izan da Euskal Herriko kultur-gune erreferentzialetakoa bat eta bere lekua irabazi du Euskal Herriko kulturaren mapan. Usurbilera baldin bazatoz, bere kaleetan murgiltzea eta paseatzea nahikoa izango duzu edonora begiratu eta artelan bat aurkitzeko. Kalean, plazetan, hormetan... Lehengo zein oraingo izen handiko sortzaileen lanak eta ondare aztarnak nonahi izango dituzu zure begiradaren zain. Gida baten laguntzaz ezagutu ahal izango dituzu artelan guzti hauek ordubeteko bisita gidatuan.

- Martxoak 9 "Museo Irekia eta Zumeta Estudioa"** 11:00, Sutegi Aretoa.
- Martxoak 22 "Salbatore Elizaren ondarea"**. 11:00, Salbatore Eliza.
- Martxoak 23 "Usurbilgo Sagardoaren kultura"** 10:00, Borda Berri kalea, 3 Sagardoaren Eskutera.
- Martxoak 26 "Zero Zabor"** 10:00, Udaletxea.
- Martxoak 28 "Zaintzaren Usurbil"** 10:00, Udaletxea.
- Otsailak 28 "Zaintzaren Usurbil"** bisita gidatua. 10:00, Udaletxea.

Gehienezko bisitari kopurua: 14
Sarrerak <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>
 Telefonoa: 747 485 140 · turismoa@650usurbilbizi.eus
 Eskudirutan ordainduko da, bisita gidatua hasi baino lehenago.

UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00	3	4	5	6	7	●	●
Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30	10	11	12	13	14	●	●
Ixita ●	17	18	19	20	21	●	●
Goizez ●	24	25	26	27	28	●	●
	31						

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
 Tel.: 943 360 692 · www.liburutegiak.euskadi.eus/katalogobateratua

Usurbilgo Udala
 Kultura, Euskara eta Gazteria Saila
 Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus



usurbilkultura.eus
 Herritarren tresna
 Usurbilgo kultura zabaltzeko

USURBIL KULTURA 2025eko martxo

	Ostirala 18:30 Agerialden	USURBILGO INAUTERIA URDE BADATOR!	28
	Larunbata Egun osoan, Kaxkoan	INAUTERI FESTA	1
	Asteazkena 19:00 Kalezarreko ermitan	XXI. SOINURBIL: ZUMARTEKO ABESBATZEN KONTZERTUA	5
	Larunbata 21:00 Artzabalen	EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA: DJ IKASTAROAN PARTE HARTU DUTEN EMAKUMEEN MUSIKA ETA KRUI KOLEKTIBOAREN SAIOA	8
	Igandea 17:00 Sutegin	HAURRENTZAKO ZINEA: TURULEKA OILOA	9
	Astelehena 19:00 Sutegin	XXV. LITERATUR SOLASALDIA GAZTELERAZ	10
	Asteazkena 18:00 eta 19:00 Salbatore Elizan	XXI. SOINURBIL: ORGANO ERAKUSTALDIA	12
	Igandea 19:00 Salbatore Elizan	XXI. SOINURBIL: SUHAR ABESBATZA	16
	Asteartea 18:30 Sutegi auditoriumean	"SUBCAMPEÓN" LIBURUAREN AURKEZPEN-SOLASALDIA	18
	Asteazkena 18:30 Sutegiko auditoriumean	XXI. SOINURBIL: HONDARRIBIKO MUSIKA ESKOLAREKIN TRUKEA	19
	Osteguna 18:00 Emakumeon etxean	"7.300 MILIGRAMO ESZITALOPRAM" LIBURU AURKEZPENA	20
	Osteguna 18:30 Eliza Zaharrea	XXI. SOINURBIL: ZUMARTE TALDE INSTRUMENTALEN KONTZERTUA AGINAGAN	20
	Ostirala 18:30-20:00 Potxoenean	HELDUENTZAKO TERTULIA FILOSOFIKOA	21
	Larunbata 12:00 Sutegiko auditoriumean	XXI. SOINURBIL: EUSKAL HERRIKO TRIKITILARI ELKARTEAREN 50. URTEURREN SORRERA EKITALDIA	22
	Igandea 12:00 Kalean 13:00 Frontoian	XXI. SOINURBIL: TRINTXERPEKO MUSIKA BANDA	23
	Igandea 18:00 Sutegiko auditoriumean	XXII. LABURBIRA: EUSKARAZKO FILM LABURRAK	23
	Osteguna 18:30 Hondarribian	XXI. SOINURBIL: ZUMARTEKO IKASLEEK KONTZERTUA HONDARRIBIAN	27
	Ostirala 17:30 Sutegi Liburutegian	KOMIKI TAILERRA, AINARA AZPIAZU "AXPI"-REN ESKUTIK	28
	Larunbata Egun osoz	USURBILGO GAZTE EGUNA	29
	Larunbata 11:00 Sutegiko auditoriumean	AURKEZPENA: USURBIL HERRI ZAINTZAILEA	29
	Larunbata 12:00 Mikel Laboa plazatik	KANTU JIRA KALEZ KALE	29
	Igandea 18:00 Sutegiko auditoriumean	XXI. SOINURBIL: HITZALDIA: MUSIKA SORKUNTZAZ BERRIKETAN	30

ERAKUSKETA

Osteguna eta Ostirala: 17:30-20:00
 Larunbata eta Igandea: 11:30-14:00/17:30-20:00
 Sutegiko erakustetaretoan

XXI. SOINURBIL: ARGAZKI ERAKUSKETA: "JANELA" LEIHO BAT GORKA URBIZUREN UNIBERTSORA BEGIRA

14-30

2025eko MARTXOA

USURBIL

Kultura



MARTXOAK 22, LARUNBATA

Euskal Herriko Trikitilari Elkarteak 50 urte!

2025eko MARTXOA
2025eko MARTXOA
2025eko MARTXOA

can nalko festa.
 loren erromeria.
 Kalea...
 onal...
 Euskal giro oso-osoko

INAUTERIAK 2025 OTSAILAK 28 MARTXOAK 1

Antolatzaileak: Noaua! Kultur Elkarte eta Orbeldi dantza taldea.

Laguntzaileak: Zumarte Musika Eskola, Usurbilgo Euskal Kantu Taldea, Ziortza Gazte Elkarte, Txirikorda eta Belmonte Auzo Elkarte.

OTSAILAK 28, OSTIRALA Usurbilgo Inauteria. Urde badator!

18:30 Agerialdetik abiatuta.

Herri-kalejira Agerialdetik abiatuta: Agerialde-Arnerreka-Txirikorda-Kalezar-Mikel Laboa Plaza Mozorrotu eta etor zaitez gurekin Usurbilgo inauteriaz gozatzera!

MARTXOAK 1, LARUNBATA Inauteri festa

Egun osoan, Kaxkxoan.

Gaia: Superheroiak (marrazki bizidunetako superheroi ezagunetatik haratago, gutako bakoitzarentzat superheroi izaera irudikatzen duten mozorroak...)

18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.

22:30 *Itza*/erromeria taldearen emanaldia frontoian.



XXI. Soinurbil Musika Astea

Martxoak 5-30

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.

Laguntzaileak: Salvatore Parrokia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.



MARTXOAK 5, ASTEAZKENA Zumarteko abesbatzen kontzertua

19:00 Kalezarrek ermitan.

Zumarteko abesbatzak eta kantuko ikasleek martxoaren 8 emakumearen eguna izanik, kontzertu berezia eskainiko dute emakumeek konposaturiko musikarekin.



MARTXOAK 12, ASTEAZKENA Organo erakustaldia

18:00 Salvatore Elizan.

19:00 Salvatore Elizan.


Joan Luis Atxegaren eskutik Usurbilgo organoa gertutik ezagutzeko aukera paregabea izango dugu.



MARTXOAK 16, IGANDEA Suhar abesbatza

19:00 Salvatore Elizan.

Euskal Herri osoko ia 40 abeslariz osaturiko taldea da Suhar Korua. Esteban Urzelaireren zuzendaritzapean eta Amaia Zipitria pianojolearen laguntzarekin gizon-abisbatzetzako errepertorioa maila gorenean lantzeko eta zabaltzeko asmoa dute. 2023an, Tolosako 54. Abesbatza Lehiaketako 5 sariak bereganatu zituzten eta bere sorreratik Euskal Herriko jaialdi nagusietan eta estatuko agertoki askotan egon ostean, Eslobenian, Bulgarian eta Txinan ere egon dira.



MARTXOAK 19, ASTEAZKENA Hondarribiko Musika Eskolarekin trukea

18:30 Sutegiko auditoriumean.

Sarrerak: Musika Eskolan.

Hondarribiko Musika eta Dantza Eskola 1992an sortu zen Hondarribiko hiriri zerbitzua emateko. Gaur egun 18 irakasle arduratzen dira nahi duten familia, haur, gazte edo helduei musikaz gozatzeko aukera ematen.



MARTXOAK 20, OSTEGUNA Aginagako kontzertua

18:30 Eliza Zaharrean.

Zumarteko talde instrumentalen kontzertua.



MARTXOAK 22, LARUNBATA Euskal Herriko Trikitilari Elkartearen 50. urteurren sorrera ekitaldia

12:00 Sutegiko auditoriumean.

1972an Usurbilen egindako Trikitixa egun batek erein zuen hazia Euskal Herriko Trikitixa Elkarte sortzeko. Egun horretatik hasita 50 urte luzez lanean dihardu Elkarteak eta 50. urte bete dituen honetan historia guztia biltzen duen liburua idatzi dute Laxaro Azkunek eta Haritz Garmendiak. Liburuaren xehetasunak eta bertako pasarteak kontatzen datoz bi idazleak martxoaren 22an Sutegin egingo den aurkezpena.



MARTXOAK 23, IGANDEA Trintxerpeko musika banda

12:00 Kalean.

13:00 Frontoian.

Trintxerpek Illunbe musika-banda 1978-79an hasi zen jotzen eta lehenengo kontzertua jaietan eman zuen, 1979an. Banda osatzen duten kide guztiek Illunbe musika-eskolan eta Pasaiaiko Musika kontserbatorioan ikasi dute. Pasaiaiko musikako irakasle Fran Berra da zuzendaria.



MARTXOAK 27, OSTEGUNA Zumarteko ikasleek Hondarribian kontzertua

18:30 Hondarribiko Kultur Etxeko aretoan.



MARTXOAK 30, IGANDEA Musika Sorkuntzaz berriketan

18:00 Sutegiko auditoriumean.

Hizlariak: Olatz Salvador eta Jokin Pinatxo.

Moderatzaileak: Gari Udabe.

2025ean 40 urte beteko ditu Zumarte Musika Eskola. Hamaika ikastaro, emanaldi eta bizipen. Hauek denak oroitu eta omentzeko ekitaldi ugari izango dira 2025ean. Ekitaldi hauen barruan kokatzen da "Musika Sorkuntzaz berriketan" hitzaldia.



Martxoaren 8a

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Antolatzaileak: Usurbilgo Emakumeon Etxea eta Usurbilgo Udala.

MARTXOAK 5 eta 6, ASTEAZKENA eta OSTEGUNA DJ ikastaroa

18:00etatik 20:00ak arte Pelaiokenean.

Norentzat: 15 urtetik gorako emakumeentzat.

Izen-ematea: Pelaiokenean otsailaren 28a arte.

Prezioa: doan.

KR11 Kolektiboaren eskutik, teknologia berriak gerturatu eta makinak erabiltzeko beldurra kentzeko aukera ematen duen ikastaroa.

Izen-ematea eta informazio gehiago: 943 377 112 eta emakumeon etxea@usurbil.eus



MARTXOAK 8, LARUNBATA Emakumeen Nazioarteko Eguna

21:00 Pikoteo musikatua Artzabalen (Tiketak Artzabalen eta Txirristran).

DJ ikastaroan parte hartu duten emakumeen musika saioa eta ondoren KR11 Kolektiboaren saioa, Artzabalen.

9

Igandea

17:00

Sutegiko auditoriumean

Haurrentzako zinea: Turuleka Oiloa

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala.

Laguntzaileak: Ziortza Gazte Elkarte.

Sarrerak: 3,5 euro. usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Turuleka oso oilo berezia da. Itxura xelebrea duelako eta arrautzarik errun ezin duelako, beste oiloek barre eta iseka egiten diote... harik eta, halako batean, Ixabelek, musika andereño erretiratu batek, bere baserrira eramaten duen arte, berekin bizitza. Han, adiskidetasun giroan eta zorionsu, oiloak bere dohain ezkutua aurkituko du: Turu-k hitz egin dezake! Eta badaki abesten ere, izugarri ondo gainera!

Gure laguntza, bere musikarako dohain zoragarriari esker, Daedalus zirku handiko izar bihurtuko da. Bidaia ez da batere erraza izango, ordea, Damian Maltzur gaiztoak beretzat hartu nahi baititu zirku... eta Turuleka harrigarria.



10

Astelehena

19:00

Sutegi Liburutegian

XXV. Literatur solasaldia gaztelaraz

Antolatzaileak: Sutegi udal liburutegia.

Iraupena: 1,15 ordu.

Mintzagai izango dugun liburua: **Monika Zgustováren SOY MILENA DE PRAGA**; bitartekaria, beste behin, Ana Merino usurbildarra izango da. Aipatu liburuaren aleak eskuragarri ditugu Liburutegian.



18

Asteartea

18:30

Sutegiko auditoriumean

"Subcampeón" liburuaren aurkezpen-solasaldia

Antolatzaileak: Sutegi udal liburutegia

Iraupena: 1,30 ordu.

Zuhaitz Gurrutxaga eta Ander Izagirrek elkarlanean idatzitakoak; egileak gure artean izango dira.

Saiora joan aurretik, norbaitek aipatu liburua irakurri nahiko balu, Liburutegian badugu hainbat ale eskuragarri.



20

Osteguna

18:00

Pelaiokenean

Liburu aurkezpena: "7.300 miligramo eszitalopram"

Antolatzaileak: Parekidetasun saila

Iratxe Etxebarria egileak liburua aurkeztuko du.



21

Ostirala

18:30 - 20:00

Potxoenean

Helduentzako tertulia filosofikoa

Antolatzaileak: Usurbilgo Oinherri eta Jakinmin elkarteak.

Gidaritza: Garazi Aizpurua.

Izen-ematea: Doan. Usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Partaide kopurua: 15 pertsona.

Filosofatzeak berarekin dakar pentsamendu kritikoa garatzea. Pentsamendu kritikoa beti uste izan duzun hori zalantzan jartzea da, eta beste zerbaitek pentsatzeko irekita egotea. Usurbilgo Oinherri eta Jakinmin elkarteak hurrekin zein helduekin filosofatzen daramatza hiru urte. Arrakasta ikusirik aurten ere filosofatzen ibiliko gara! Bazatuz?



23

Igandea

18:00

Sutegiko auditoriumean

XXII. LABURBIRA Euskarazko Film Laburrak

Antolatzaileak: Noaua! Kultur Elkarte.

Nori zuzendua: helduei.

Sarrera: doan.

8 film laboru ikusgarri, 2025eko Laburbiran.

2025 Laburbirak Euskaraz sortu eta ekoiztako film laburren zirkuituak aurten bere 22. edizioa beteko du. Martxoaren 7tik apirilaren 11ra bitartean eskainiko da Euskal Herriko areto ezberdinetan.

Ondorengo lanak ikusteko aukera izango dugu:

- *Prosopagnosia* (Ekain Martínez de Lizarduy)
- *Plazer bat* (Sonia Estevez)
- *Betiko gaua* (Eneko Sagardoy)
- *Europa* (Ekain Irigoien)
- *Pentsatzen dut* (Alaia Martin, Karmele Mitxelena, Iraitz Mateo)
- *Hor konpon* (Jone Arriola)
- *Goodbye Kepler* (Nerea Ayala)
- *Utlandsk* (Alba Lozano)

Ondoren, zuzendari batekin solasean aritzeko aukera izango dugu.



28

Ostirala

17:30

Sutegi Liburutegian

Komiki tailerra, Ainara Azpiazu "Axi"-ren eskutik

Antolatzaileak: Sutegi udal liburutegia.

Izen ematea: Sutegi Liburutegian. Plaza mugatuak.

Iraupena: 1,30 ordu.

8/9 urtetik gorako (LH4tik gorako) haur eta gaztetxoentzat (DBH barne). Saio honetan komiki bat egiteko oinarriko eza-gutzak eta baliabideak eskainiko dira: biñetak, bokadilloak eta beste.



29

Larunbata

11:00

Sutegiko auditoriumean

Aurkezpena: Usurbil, herri zaintzailea

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala.

Gonbidapenak: usurbilkultura.eus.

Usurbilgo zaintza ereduaren eraldaketa herriarrei ezagutarazteko aurkezpena izango da. Orain arte udalak eta hainbat eragilek elkarrekin egindako bidea azaltzarekin batera, egungo egoeraren zein hurrengo hilabetearako asmoen berri emango dugu. Udal ordezkari politiko zein teknikoez gain, Usurbilgo komunitatea osatzen duten hainbat eragilek ere parte hartuko dute, euren jardunaren berri emateko.

